

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## EUSKO JAURLARITZA

## LAN ETA JUSTIZIA SAILA

## Arabako lurralde ordezkariak

## 2020ko laneko jaiegunen egutegia

Ebazpena, 2019ko uztailaren 22koa, Lan eta Justizia Saileko Arabako lurralde ordezkariarena, 2020rako Araban tokiko jaiegunak ezartzen dituenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 12. artikuluan eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzak, martxoaren 26ko 52/2019 Dekretuaren bidez (2019ko apirilaren 1eko EHAA), honako hau onartu du: 2020. urtean, igandeez gain, hamabi egun baliogabe egotea lan-ondorioetarako.

Hona hemen hamabi egun baliogabe horiek:

Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.

Urtarrilaren 6a, Errege Magoen eguna.

Martxoaren 19a, San Jose eguna.

Apirilaren 9a, Ostegun Santua.

Apirilaren 10a, Ostiral Santua.

Apirilaren 13a, Pazko Astelehena.

Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.

Uztailaren 25a, Santiago Apostolua.

Abuztuaren 15a, Andra Mari eguna.

Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.

Abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna.

Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaria eskuduna da honakoa ezartzeko: lurralde historikorako lanerako bi egun baliogabe, ordainduak eta errekueratu behar ez direnak, tradizioz tokiko festak izan ohi direnak. Horretarako, dagozkien udaletako osoko bilkurek proposamena egin behar izan dute aurretik. Hori guztia, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 5eko 134/2005 Dekretuaren 2. artikuluan eta apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 15.1.g artikuluan ezarritakoaren arabera. Azken horrek Lan eta Justizia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du.

Udalekin egin beharreko kontsulta egin eta gero, honako hau,

Ebazten dut

Lehena eta bakarra: Arabako lurralde historikoan, 2020rako tokiko eremuko bi jaiegunak, ordainduak eta errekueratu behar ez direnak, lan-ondorioetarako lan baliogabetzat hartzen direnak, hauexek izango dira:

**Arabako jaieguna**

apirilaren 28a

**Toki mailako jaiegunak**

Agurain	ekainaren 24a	(San Joan Bataiatzailea)
Aiara		
Agiñaga	uztailaren 27a	(Santiago)
Añes	maiatzaren 21a	(San Ramiro)
Arespalditza	maiatzaren 15a	(San Isidro)
Beotegi	irailaren 29a	(Done Mikel)
Erbi	maiatzaren 4a	(Gurutzea)
Etzegoien	maiatzaren 8a	(Antiguako Ama)
Izoria	urtarrilaren 7a	(Done Julian)
Kexaa	abuztuaren 5a	(Elurretako Andra Maria)
Lexartzu	abenduarien 9a	(Sortzez Garbiaren eguna)
Luxo	abuztuaren 17a	(Jasokundearen eguna)
Luiaondo	uztailaren 22a	(Magdalena eguna)
Llantenó	uztailaren 27a	(Santiago)
Madaria	azaroaren 23a	(San Klemente)
Maroño	urtarrilaren 17a	(San Anton)
Menagarai	ekainaren 29a	(Done Petri)
Menoio	apirilaren 25a	(San Marko)
Murga	ekainaren 24a	(Done Joane)
Olabezar	urtarrilaren 24a	(San Babilas)
Opellora	irailaren 29a	(Done Mikel)
Ozeka	urriaren 8a	(Errosarioko Andra Maria)
Retes de Llantenó	uztailaren 22a	(Magdalena eguna)
Salmantón	uztailaren 18a	(Dona Marina)
Soxo	abuztuaren 31	(Done Meteri)
Zuhatza	uztailaren 18a	(Dona Marina)
Alegría-Dulantzi	otsailaren 3a	(San Blas)
Amurrio	abuztuaren 17a	
Añana	uztailaren 10a	(Done Kristobal)
Aramaio	uztailaren 6a	
Armiñón	azaroaren 11	(Tourseko San Martin)
Arraia-Maeztu	ekainaren 15a	
Arratzua-Ubarrundia	abenduarien 28a	
Artziniega	irailaren 8a	(Arteako Andra Maria)
Asparrena	ekainaren 29a	
Barrundia	ekainaren 24a	(Jon Deuna)
Bastida	azaroan 26a	(Esker Oneko 2. eguna)
Berantevilla	irailaren 8a	(Jasokundearen eguna)
Bernedo	irailaren 8a	
Bilar	maiatzaren 15a	(San Isidro)
Burgelu	ekainaren 29a	(San Pedro)
Donemiliaga	azaroaren 13a	(Done Milian)
Elciego	irailaren 8a	(Plazako Andra Maria)
Erriberagoitia	maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazaria)
Eskuernaga	maiatzaren 15a	(San Torkuato)
Gaubea	maiatzaren 15a	
Harana	maiatzaren 15a	(San Isidro)

Iekora	abuztuaren 21a	(Berzijanako Andra Maria)
Iruña Oka	abuztuaren 14a	(San Roke)
Iruraiz-Gauna	ekainaren 24a	(Done Joane)
Kanpezu	maiatzaren 15a	(San Isidro)
Kripan	irailaren 8a	(Andra Maria)
Kuartango	ekainaren 24a	
Lagran	abuztuaren 24a	
Laguardía	ekainaren 24a	(Done Joane)
Lantziego	irailaren 8a	(Landako Andra Maria)
Lantarón	irailaren 16a	(Done Kornelio eta Done Zipri)
Lapuebla de Labarca	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Laudio	abuztuaren 17a	
Legutio	irailaren 14a	(Kofradiak)
Leza	abuztuaren 17a	
Mañueta	uztailaren 10a	(Done Kristobal)
Moreda Araba	urriaren 22a	(Alodia eta Nunilo Santuak)
Navaridas	ekainaren 2a	(Done Joane Ortegakoa)
Okondo	abuztuaren 24a	(San Bartolome)
Oyón-Oion	urtarrilaren 22a	(Bikendi eta Anastasi Santuak)
Peñacerrada-Urizaharra	maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazaria)
Samaniego	irailaren 8a	(Haranako Andra Maria)
Urkabustaiz	urriaren 5a	(Errosarioko Andra Maria)
Vitoria-Gasteiz	abuztuaren 5a	(Andra Mari Zuria)
Zalduondo	ekainaren 12a	(Hargatiko Eguna)
Zanbrana	abuztuaren 5a	
Zigoitia	abuztuaren 5a	
Zuia	irailaren 29a	(San Miguel)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 22a

*Arabako lurralde ordezkaria*  
**CARMELE DE CELIS CUEVAS**